



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

32. buletina (2006ko maiatzaren 10ean argitaratua)

- **Laburpena:**

1. **Mikrobio Analisisien Zuzendari Tekniko lanpostu bat aldi baterako betetzea**
2. **Irakasle-perkusionista lanpostu bat aldi baterako betetzea.**
3. **Dietista lanpostu bat aldi baterako betetzea**

- **Zehaztapenak:**

1. **Mikrobio Analisisien Zuzendari Tekniko lanpostu bat aldi baterako betetzea**

- Mikrobio Analisisien Zuzendari Tekniko lanpostu bat aldi baterako kontratatu behar da, Osasun eta Kontsumo Sailean lan egiteko.
- **Betebeharreko baldintzak:** biologia zientzia, elikagaien zientzi eta teknologia, farmazia edo albaitaritzako lizentziatura.
- **Baloratuko diren baldintzak:** elikagaien mikrobiologian eta/edo uretakoan aritua izatea. Prestakuntza laborategiko tekniketan, laborategiko kalitatean (gutxienez, 40 orduko ikastaroak). Laborategiko kalitate kudeaketan eta Lims sistemetan aritua izatea. Informatikako ezagutzak: datu baseak, testu tratamendua eta kalkulu orria.
- **Kontratu mota:** aldi baterako bitarteko funtzionario programa dela eta. Iraupena: zehaztugabea. Lanaldi mota: 100%. Hileko soldata gordina: 2.649,28.
- **Lanpostuko zeregin nagusiak:**
 - Kalitatearen eskuliburuan, kalitate prozedura eragileen eta esleitzen zaizkion zeregin eta ardurei aplikatu ahal zaizkien lan prozeduren zehaztapenei jarraitu.
 - Dagokion laborategiko eremuaren zuzendaritza tekniko, elikagaien higieneko taldeen jarraipena eta haren eremuko prozesu analitikoaren koordinazioa.
 - Parte den eremu tekniko saiakuntzekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten prozedura teknikoak egin eta berrikusi, eta haren eskumeneko lan eremuaren prozesuen eta lan fluxuen definizioa laborategiko kudeaketaren aplikazio informatikorako.
 - Lagin eta saiakuntzak kudeatzea haren eskumenen eremuan, txostenak egin eta onestea.
 - Eremuko saiakuntzen aldiaren kalitate kontrola planifikatzea eta burutzapena kudeatzea, azkenean emaitzak ebaluatzea.
 - Langileen prestakuntza.
 - Eremu horretarako ekipoen, materialen eta zerbitzuen hornikuntza planifikatzea, kontrolatzea eta kudeatzea.
 - Bat ez datozenetarako tratamenduak eta eremuko ekintza zuzentzaile espezifikoak proposatzea, teknikari analisigileen berezkoak diren jarduerak baita PNTE-LM-031 prozeduraren berezko zereginak gauzatzea.
- Izangaien onarpena LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta

162006005558 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzate eskatu, 2006ko maiatzaren 22a arte (hori barne).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.
- Hautaketa prozesuak bi zati izango ditu. Hautaketa prozesuaren lehenengo zatian betebeharreko baldintzak betetzen dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da "baloratuko diren baldintzak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, eta 10 hoberenak aukeratuko dira. Prozesuaren bigarren zatian aurre-hautaketan aukeratutakoek lanpostuaren ezagupen eta/edo zereginen inguruko ahozko proba egingo dute.
- Hautatze prozesuan onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrendari buruzko argibideak baita ahozko probarako deialdiari buruzkoak ere, 2006ko maiatzaren 30eko 12:00etatik 010 telefonoan (945 161798 Gasteiztik kanpotik deituz gero), udaletxeko iragarki oholean (Espainia plaza) edo udalaren web orrian kontsultatu ahalko dira. <http://www.vitoria-gasteiz.org>.
- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuaren prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

2. Irakasle-perkusionista lanpostu bat aldi baterako betetzea

- Irakasle-perkusionista lanpostu bat aldi baterako kontratatu behar da, Kultura Saileko Udal Folklore Akademiaren.
- **Betebeharreko baldintzak:** goi mailako batxilergoa, LHII, goi mailako zikloa edo baliokidea eta musika irakasle titulu ofiziala, 66ko planaren erdi mailakoa, edo Logseko musikako goi mailakoa, espezialitatea perkusioan edo baliokideak. 2. hizkuntza eskakizuna.
- **Kontratu mota:** aldi baterako bitarteko funtzionario hutsik dagoen lanpostuan, legez bete arte. Lanaldi mota: % 100, goiz eta arratsaldeko ordutegia Hileko soldata gordina: 1.841,95 euro.
- **Lanpostuaren zereginak:**
 - Folklore akademiako antolakuntzan (plana, oroit-idazkia, jardueren programazioa...) eta kudeaketan (klaustroa, irakasle taldeak...) parte hartzea.
 - Ikasleekin lortu nahi diren helburuak eta egingo diren jarduerak programatu, bideratu eta ebaluatzea, helburu orokor eta berariazkoen ildotik eta azalduko metodologia baliatuz.
 - Tutoretzaren berezkoak diren jarduerak garatzea.
 - Zabalkunde programetan, jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan baita korporazioak zehazten dituen protokolo ekitaldietan ere parte hartze aktiboa izatea.
 - Folklorearen inguruko ekarpen berriak sortzea eta arlo horretan ikerkuntza lanak egitea.
- Izangaien onarpena LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162006005594 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzate eskatu, 2006ko ekainaren 9a arte (hori barne).
- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.
- Atal hauek izango ditu hautatze prozesuak:
 - 1. PROBA. Epaimahaiak proposatu gaiaren inguruko klasea ematea 2. mailako ikasle bati. Baztertzaila.

- 2. PROBA. "Ansola Anaiak" IV Julian pieza atabalarekin jotzea. José Ignacio Ansorena (Txistulari aldizkaria, 110 zk., musikako 3.080. orrialde korrelatiboa). Aurretik 20 minutuko probasaio txistulari bandarekin, estilo eta interpretazio irizpideak. Baztertzalea
- 3. PROBA.
- A) Akonpainamendu inprobisatua dagokion erreperitorioko ohiko erritmoetako hainbat melodiatarra: a) gaitarekin jotzen den danborra, b) trikitixa eta/edo albokarekin jotzen den panderoa , c) txisturekin jotzen den atabala .
- B) Izangaiak aukeratzen duen obra bateriaz jotzea.
- C) Txalaparta jotzea, hiru minutuz.
- B) eta C) azpiataletan musika akonpainamendua izangaiak berak jarri beharko du.
- 4. PROBA. Izangaiak epaimahaiaren aurrean defendatu beharko ditu honako gaien inguruan planteatzen zaizkion honako hauek:
 - a.- Euskal Herriko musika eta dantza tradizionalak: erritmoak eta dantza tipo ohikoenak.
 - b.- Dantza tradizionalen akonpainamendua: musika formazio ohikoenak.
 - c.- Txistulari banda herriko tradizioan: taldeak, zereginak, erreperitorioa, historia.
- Hautatze probetara onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrenda, baita horretarako deialdiaren inguruko argibideak ere, 2006ko ekainaren 21eko 12:00etatik 010 telefonoan (945 161798 Gasteiztik kanpotik deituz gero), udaletxeko iragarki oholean (Espainia plaza) edo web orria kontsultatu ahalko dira. <http://www.vitoria-gasteiz.org>. **Hautatze probak ekainaren azkenengo astean egitea aurreikusi da.**
- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

3. Dietista lanpostu bat aldi baterako betetzea

- San Prudentzioko Adinduentzako egoitzan dietista bat aldi baterako kontratatuko da, Gizartegintza Sailean lan egiteko.
- **Betebeharreko baldintzak:** Dietetika eta nutrizioko diplomatura
- **Kontratu mota:** aldi baterako bitarteko funtzionario hutsik dagoen lanpostuan, legez bete arte. Lanaldi mota: % 100 astelehen, asteazken eta ostiralean 8:00etatik 15:20ra. Astearte eta ostegunetan 8:00etatik 13:20ra eta bi ordu 17:00etatik 21:00etara. Larunbatetan txandaka. Hileko soldata gordina: 2341,43 euro.
- **Lanpostuaren zereginak:**
 - Erabiltzaileentzako dieta orokorrak eta espezifikoko prestatzea
 - Lehengaien kontrola.
 - Pestiziden analisisa eta puntu kritikoena betetzea.
 - Egun dauden dieten azterketa eta ebaluazioa: pureetan oinarritutakoa, alternatiboa, diabetikoak direnentzako eta gastroenteritisa dutenentzako.
 - San Prudentzio ALZI egoitzako eta eguneko zentroko erabiltzaileen nutrizio egoera baloratzea.
 - Medikuen mendekotasun funtzionala, dietei buruzko jarraibideak ematearen inguruan.
 - Dieta nutrizional bereziak egin eta haien jarraipena egiteko proposamena, Zerbitzu Medikoak eredu jarriko duela.
 - Erabiltzaileen, orohar, egoera nutrizionala ebaluatzea, eta Zerbitzu Medikoak eskatzen dituen beste guztiena, hain zuzen, dietaren kontrol eta jarraipen berezia behar dutenena.
 - Erabiltzaileek elikaduraren inguruan duten jokatze modua eta hori zuzentzeko edo indartzeko jarraibideak
 - Sukaldeburuari jarraibideak eman baita prestakuntza dietetikoa ere
 - Elikadura osasungarria izateko hezkuntza programak gauzatzea eta burutzea
 - Sukalde zerbitzuan lan egiteko ohiturak hobetzeko proposamen positiboekin lagundu, zerbitzuan ezarritako arauak betetzen direla bermatzeko asmoz.
- Izangaien onarpena LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta

162006005740 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, **2006ko maiatzaren 22ra** arte (hori barne).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.
- Hautaketa prozesuak bi zati izango ditu.
 1. zatia: Betebeharreko baldintzak betetzen dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da "baloratuko diren baldintzak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, eta 10 hoberenak aukeratuko dira.
 2. zatia: Aurre-hautaketan aukeratutakoek lanpostuaren ezagupen eta/edo zereginen inguruko proba teoriko-praktikoa egingo dute.
- Hautatze probetara onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrenda, baita horretarako deialdiaren inguruko argibideak ere, **2006ko maiatzaren 30an 12 etatik** 010 telefonoan (945 161798 Gasteiztik kanpotik deituz gero), udaletxeko iragarki oholean (Espainia plaza) edo web orria kontsultatu ahalko dira. <http://www.vitoria-gasteiz.org>.
- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 17 98)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA